

Abarrak

Urko Apaolaza

Erlearen Amerika, bitarteko espazio bat?

AEBETAKO MENDEBALDEKO euskaldun-
nez ari da *Erlea* literatura aldizkaria bere
lehen alean. Bernardo Atxagak Renon
eginiko kontaktuen uzta dira orri lanbro-
tsuok. Jakina da euskaldunek Far West
hartan historia luzea dutela egina, hamai-
ka ikerketa, literatura lan eta publikazio
sortu da Mendebalde urruneko euskaldu-
nen harira. Alde horretatik ez da originala
aldizkariak proposatzen digun irakurketa,
euskal diasporan ezagunak diren izenak
eta situazioak antzemango baititu irakur-
leak *Erlea* honetan. Gainera, artikulu-sorta apur bat
nahasia ere egiten da, heldulekurik gabeko atmosferan
bageunde bezala. Baina tira, literatura literatura da, ezta?

Leku nabarmenean ageri da Robert Laxalt (1924-
2001) idazleaz eginikoa. Estibalitz Ezkerrak eta Mari
Jose Olaziregik bere *Sweet Promised Land (SPL)* liburu
ezagunaren ibilbideaz hitz egiten dute artikulu mami-
tsuan. *SPL*-z asko hausnartu da, eta haren arrakastaren



LAXALT FAMILY ARCHIVE / BLN

konklusio nagusietakoa izan da etorkinak ezin
ederkiago sentitu zirela identifikatuta berare-
kin. Artikuluaren egileek diote ordura arte kal-
tegarritzat jo izan zuela emigrazioa euskal lite-
raturak –Azkueren *Ardi Galdua* horren
adibide– eta emigrantearen “nortasun konple-
xuaren” erakusgarri izan zela *SPL*. Aldiz,
Xabier Mendiguren Bereziartuk 1988an euska-
razko itzulpenarako izenburua berridatzi zue-
nean –*Dominique, artzain Xiberutar bat Neva-
dan*– “euskal aberritik” ari zela diote,
konplexutasun hori kontuan hartu gabe.

Antza, mugak lausotzen dira Amerikara joandakoan,
“bitarteko espazioan” bizitzen da pertsona... eta idazlea.

Izan ere, Atxagarentzat bezala, AEBak inspirazio eta
joan etorrien helmuga bihurtu dira azkenaldian beste
hainbat euskal idazleentzat ere. Bitarteko espazio zehaz-
gabe horretan erosoago sentituko ote dira? Baleike.
Azken batean Ruperrri ere inork ez zion esan euskalduna
izatea zein nekeza den.

15 joko baino gehiago

Zoo zoroa

Irudimena eta sormena suspertzeko ezin hobea!

3-5 urte PCrako jokoa

www.elhuyar.org/zoozoroa
www.elhuyar.org/edizioak

5eko deskontua
www.elhuyar.org/
edizioak
helbidean